

# 6 mantangorri

# iRAKURRI, ETA ONDO PASA!



## Elkartasun aterkia, berriro zabalik

Maiatzean, Elkartasuna da gure aterkia, zabaldu! egitasmoa abiarazi zuen Irrien Lagunak klubak, Sortzen ikasbatuaz elkarrean antolatutako festan izandako galerei aurre egiten laguntzeko asmoz. Berriz aterki berbera zabalzeko gonbita egin nahi du klubak. Oraingoan, Nafarroa Oinez-eko antolatzaileei laguntzea da haien helburua.

Joan den igandean, kolorea eta irria zabaltzeko asmoa zuen Irrien Lagunak klubak, San Fermin ikastolak Zizur Txikian antolatu zuen Nafarroa Oinez jaian. Euskaraz ikasteko eta bizi-



Nafarroa Oinez festa ilundu zuen euriak.


tzeko oztoko handiak dituzte Nafarroan, eta ikastolak aspalditik ari dira gogor lanean errealitate horri buelta emateko. Gogotik ahalegindu arren, euriak eta eguraldi txarrak jaia ilundu eta busti zuen. Ondorioz, espero baino askoz jende gutxiago elkartu zen Zizur Txikian, eta San Fermin ikastolako lagunek urte osoan egindako lanak ez zuen eman esperotako emaitza.

Bertara joandako jendeari eskerrak eman ostean, antolatzaileek aitortu zuten helburuak ez zirela bete, eta euskaltzaleei laguntza emateko esku zuieten. Irrien Lagunak klubak ere bat egiten du laguntza lortzeko kantainarekin, eta berriro ere elkartasunaren aterkia zabaltzeko gonbita egin du. Laguntza emateko bideen berri [www.nafaraoinez.net](http://www.nafaraoinez.net) webgunean eman dute.

## DENBORA-PASAK


### 1. Nor ote da?

Aldagelan sartu, eta kuxkuxean aritu dira Nahia eta Aratz. **Norenak ote dira arropa eta objektu horiek?**



### 2. Amaitu eta margotu marrazkia

Alboko lagunaren erretratua egin behar dutela esan die irakasleak, baina Markelek erdi egina utzi du. **Amaitu eta margotu marrazkia.**



## Erantzunak

1.- Pala jokalariarenak dira.